

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA


2013/2014 ikasturtea

HASIERAKO ALFABETATZEA: HIZKUNTZA IDATZIAREN ZAILTASUNAK ETA ARAZOAK

Egilea: Sheila Barragan Martinez

Zuzendaria: Kepa Larrea Muxika

Leioan, 2014ko ekainaren 9an



ZUZENDARIAREN ONIRITZIA



EGILEAREN ONIRITZIA

A U R K I B I D E A

Sarrera	5
1. Marko teorikoa.....	6
1.1. Hizkuntza idatziaren definizioa.....	6
1.2. Irakurketa eta idazketa.....	7
1.3. Irakurtzeko eta idazteko prozesuen faseak.....	8
1.4. Irakurtzeko eta idazteko zailtasunak.....	10
2. Metodologia.....	12
2.1. Helburua.....	12
2.2. Hipotesiak.....	13
2.3. Baliabideak.....	14
2.4. Lagina.....	14
3. Lanaren garapena.....	15
3.1. Inkestaren diseinua.....	15
3.2. Eremu geografikoa.....	16
3.3. Laginaren ezaugarriak.....	17
3.4. Datu bilketaren prozedura.....	18
4. Emaitzak.....	19
4.1. Irakurketa eta idazketa lantzen hasteko adina.....	19
4.2. Irakurtzea eta idaztea definitzen.....	20
4.3. Irakurtzen eta idazteko metodologiak.....	20
4.4. Irakurketa eta idazketa faseak.....	20
4.5. Ikasleek hizkuntza idatziaren hastapenean izan ahal dituzten akatsak.....	21
4.6. Zergatik egiten dituzte akats horiek?.....	23
4.7. Irakasleek akatsak aurreikusteko dituzten ideiak.....	23
4.8. Haurren zailtasunen aurrean jarraitu beharreko protokoloa.....	24
5. Ondorioak.....	24
6. Arazoak eta gabeziak aurreikusteko proposamena.....	27
6.1. Eskolaren eta ikasgelaren antolakuntza.....	27

6.2. Irakasleen prestakuntza.....	28
6.3. Hizkuntza idatziaren irakaskuntza errazteko printzipio nagusiak.....	28
6.4. Ariketa funtzionalen adibideak.....	29
7. Erreferentzia bibliografikoak.....	30
Eranskinak.....	32
I. eranskina.....	32
II. eranskina.....	37

HASIERAKO ALFABETATZEA: HIZKUNTZA IDATZIAREN ZAILTASUNAK ETA ARAZOAK

Sheila Barragán Martínez

UPV/EHU

Haur batzuek hasierako alfabetatzean, hizkuntza idatziarekin zenbait arazo izaten dituzte. Arazo horiek, normalean, ikaskuntza prozesuaren baitan dauden akatsak izaten dira, baina batzuetan hizkuntza trastorno baten adierazleak bihurtu daitezke. Hori dela eta, irakasleak, ahal duen neurrian, arazo horiek aurreikusten saiatu behar du. Ikerketa honetan, haurrek izaten dituzten akatsez gain, eskolek eta irakasleek irakaskuntza honetan dituzten gabeziak eta arazoak aztertu dira. Datuak baloratu ostean, haurrek euren artean mota bereko akatsak egiten dituztela eta irakasleek hizkuntza idatziaren oinarriko kontzeptuekin zailtasunak dituztela ikusi da. Horrez gain, erabiltzen dituzten metodoak haurren ikaskuntza prozesua errazten ez dutela ikusi dugu. Hori guztia dela eta, arazoak eta gabeziak aurreikusteko proposamen bat aurkeztu dugu.

Hizkuntza idatzia, metodoa, irakaslea, zailtasunak, aurreikusi

Algunos niños, al comienzo de la alfabetización, tienen problemas con el lenguaje escrito. Estos problemas, normalmente, son errores que forman parte del proceso de aprendizaje, pero a veces pueden ser indicadores de un trastorno del lenguaje. Debido a ello, el profesorado, dentro de sus posibilidades, tiene que intentar prevenir esos problemas. En esta investigación, además de los errores que tienen los niños, se han investigado las carencias que tienen los colegios y profesores en este tipo de enseñanza. Después, de valorar los datos, se ha visto que los niños cometen errores parecidos y que el profesorado tiene dificultades con los conceptos básicos del lenguaje escrito. Además de eso, hemos visto que los métodos que utilizan no facilitan el proceso de aprendizaje de los niños. Por todo ello, se ha presentado una propuesta para la prevención de estos problemas y carencias.

Lenguaje escrito, método, profesor, dificultades, prevención

Some children, at early literacy, have problems with written language. These problems, usually, are errors that are part of the learning process, but sometimes they can be indicative of a language disorder. As a result, teachers, as far as possible, have to try to prevent these problems. In this research, in addition to the errors that children have, we investigated the lacks that have schools-teachers in this learning. After evaluate the information, it has been seen that children make similar mistakes and that teachers have difficulties with basic concepts of written language. Moreover, we have seen that the methods used do not facilitate the learning process of children. As a consequence, there has been suggested a proposal to prevent problems and lacks.

Written language, method, teacher, difficulties, prevent

SARRERA

Haurrak eskolan ikasten duen gauzarik garrantzitsuenetarikoa hizkuntza idatzia da, honen ikaskuntza, beste ikasketen oinarria delako. Orokorrean jakintzaren zati handi bat idatziz transmititzen da, hori dela eta ondo irakurtzen eta idazten ikastea beste arlo batzuetako jakintza bereganatzeko beharrezkoa da. Hala ere, haur batzuek hasierako alfabetatzean irakurtzeko eta idazteko zailtasunak izaten dituzte. Zailtasun horiek haurrak irakurtzen eta idazten ikasi baino lehen nekez diagnostika daitezke, hau da, gutxi gorabehera Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan daudenean hizkuntza idatziari buruzko arazoak nabarmenago agertzen dira. Halaz ere, Haur Hezkuntzan haurrak zenbait arazorekin topatzen dira eta horiek inoiz hizkuntza trastorno baten adierazleak izan daitezke. Irakasleen lana arazo horiek aurreikustea da, ahal den neurrian, haiei aurre egin ahal izateko. Horretarako, irakasleek hizkuntza idatzian formazioa sendoa izan beharko lukete eta, ondorioz, eskolan erabiltzeko aukeratzen dituzten metodoek haurren ikaskuntza prozesua erraztu beharko lukete.

Gure lan honen helburua, haurrek hizkuntza idatzian topatu ahal dituzten arazoak eta eskola-irakasleek esparru honetan izan ahal dituzten gabeziak ezagutzea izan da, ondoren horiek aurreikusteko proposamen bat aurkezteko. Helburua aurrera eramateko, ikerketa bat egin dugu. Ikerketa honetan, datuak biltzeko galdera-sortan oinarritutako inkesta teknika aukeratu dugu, zeinetan galdera irekiak eta itxiak agertzen diren. Inkesta burutzeko aukeratutako lagina, Barakaldo herrialdeko hiru eskolek osatu dute. Horietatik, 5-6 urteko 6 irakasle aukeratu ditugu galdera-sorta erantzuteko.

Inkesten datuak bildu eta aztertu ondoren, Haur Hezkuntzako ikasleek hizkuntza idatzian akats berberak errepikatzen dituztela eta hasiera batean ikaskuntza prozesuaren barne egon daitezkeela konturatu gara. Horregatik, irakasleek horietan arreta jarri behar dute zenbait kasutan trastorno baten adierazleak izan daitezkeelako. Horrez gain, irakasleek hizkuntza idatziaren oinarriko zenbait kontzepturekin zailtasunak dituztela ikusi dugu. Alde batetik, irakurketa, idazketa eta gelan erabiltzen dituzten metodoak definitzeko zailtasunak izan dituztela antzeman dugu; eta beste alde batetik, irakasleek hizkuntza idatziaren funtzio soziala baztertzen dutela eta idazkera baino ez dutela lantzen ikusi dugu. Hori dela eta, irakasleek aukeratzen dituzten metodoek ez dute

haurren ikaskuntza prozesua errazten. Hori guztia kontuan izanda, lan honen bukaeran arazoak eta irakasleen gabeziak aurreikusteko proposamen didaktiko bat aurkeztu dugu, eskola-irakasleentzat baliagarria izan daitekeelakoan.

1. MARKO TEORIKOA

1.1. Hizkuntza idatziaren definizioa

Haurrak eskolan egiten duen ikasketarik garrantzitsuenetakoa hizkuntza idatziaren ikasketa da. Sistema linguistiko honen ikasketa eta erabilpena, haurrak bere bizitzan zehar egingo dituen ikasketen oinarria baita. Hori dela eta, hizkuntza idatziak curriculumean ezinbesteko lekua betetzen du. Haurra etxetik ahozko hizkuntzaren garapen nahikoa ekartzen du, baina eskolan ikasteko konplexuagoa den sistema ikasi behar du. Horregatik, askotan, eskola-porrotaz hitz egiten dugunean, hizkuntza-porrotaz ari gara, hau da, idazkera sistema erabiltzeko zailtasunaz.

Hizkuntza idatziaz hitz egiteko, lehenengo eta behin idazkera eta hizkuntza idatziaren arteko bereizketa egitea beharrezkoa ikusten dugu. Montserrat Bigasek eta Montserrat Correigek (2000) aipatzen duten moduan, *idazkera* ahozko hizkuntza transkribatzeko erabiltzen dugun zeinu grafikoaren sistema da, zeinaren bitartez hizkuntza idatzia euskarri fisiko batean islatzen dugun. *Hizkuntza idatzia*, aldiz, idazkeraren bidez ekoizten dugun testua eta horrek duen funtzio edo erabilera soziala da. Kontzeptu bi horiek –idazkera eta hizkuntza idatzia–sinonimotzat hartzen dira, hori dela eta irakasle batzuek, gelan proposatzen dituzten ariketek erakusten duten moduan, hizkuntza idatzia idazkera dela uste dute. Horregatik, gaur egungo eskola askotan, idazkera sistemaren elementuak baino ez dira irakasten: grafiak, letrak eta kaligrafia, besteak beste. Era horretan, hizkuntza idatziaren esanahia eta funtzioa alde batera uzten da. Jokabide horren ondorioz, haurrek zailtasunak topatzen dituzte irakurtzen eta idazten ikastean, ikasten dutenaren erabilgarritasuna eta esanahia ulertzen ez dutelako; azken batean, ikasten ari diren sistema komunikazio instrumentu bat dela irakasten ez zaielako.

Gure hezkuntza sisteman, hizkuntza idatziaren irakaskuntza sei urtetik aurrera derrigorrezkoa da, haurrak eskolaratze ofizialean hasten direnean, hain zuzen ere. Hala ere, hizkuntza idatziarekin hasteko adin egokiari buruzko iritzi ezberdinak daude.

Batzuen ustez, haurrak gaitasun espezifiko batzuk eskuratu behar ditu irakurtzen eta idazten hasi aurretik. Beste autore batzuen ustez, berriz, ez dago oinarri psikologiko ezta biologikorik hizkuntza idatziaren irakaskuntzaren atzerapena justifikatzeko. Are gehiago, irakaspen goiztiarrak haurraren garapen intelektualerako onurak dituela baieztatzen dute. Santiago Molinak (2001: 375.or), hizkuntza idatziaren irakaspen goiztiarra zailtasunak prebenitzeko eta porrota ekiditeko estrategia ona dela dio: “[...] ia ikerketa guztiek erakusten dutenez, ikasketa goiztiar hori ona da, beti ere haurraren prozesu ebolutiboak errespetatzen baldin badira [...]”. Molinak “Onartu behar da ez dagoela ondorio negatiborik duela erakusten duen ikerketarik” gaineratzen du. Gainera, Molinak aipatzen duen moduan, hurrek irakurketara egiten duten lehen hurbilketa modu natural batean egiten dute, eskolara joan aurretik.

1.2. Irakurketa eta idazketa

Hizkuntza idatziaz ari gara, baina zer da irakurtzea eta zer da idaztea? Irakurtzea ez da soinuak deskodifikatzea ezta testua letreiatzea ere. Solék (1992: 21.or), Bigasek eta Correigek (2000) aipatua, honela definitzen du irakurketa: “Irakurtzea irakurle baten eta testu baten arteko elkarrekintza da; horren bitartez, irakurlea saiaturen da irakurtzera bultzatu duten helburuak betetzen.” Hau da, irakurlea helburu bat lortzeko irakurtzen du, horregatik testua ulertzea da gure helburua. Izan ere, hurrei ez diegu laguntza handirik eskainiko, mekanikoki hitzak errekonozitzen edo silabak ahoskatzen bakarrik trebatzen baditugu. Gainera, irakurketaren helburuak eta aurre-jakintzak aktibatzekeo estrategiak eta hipotesiak egitekeo estrategiak kontuan izan behar ditugu. Bestalde, idaztea ez da ahozko hizkuntza transkribatzea ezta hizkiak forma egokiz irudikatzea ere, baizik eta testuak planifikatzeko estrategiak ikastea da, gero testu esanguratsua eraikitzekeo.

Lan honetan, hizkuntza idatziaz mintzatzeko beti eredu konstruktibista batetik abiatuko gara. Eredu konstruktibistak idazketaren alderdi eraikitzaileak, espresiboak eta sortzaileak azpimarratzen ditu, hau da, esanahiari begiratzen dio nagusiki, eta bigarren mailan uzten ditu idazketaren alderdi figuratiboak, hau da, trazuaren forma, formen banaketa eta jarraipena, besteak beste. Josefina Pradok (2004: 194.or), irakurketa eta idazketa eredu konstruktibistatik horrela definitzen ditu:

Desde el constructivismo tanto la lectura como la escritura son concebidas como procesos interactivos de construcción del conocimiento a partir de los conocimientos previos que el lector tenga sobre el tema y la interacción con el texto, resolviendo los obstáculos que se le van planteando en ese proceso, poniendo en funcionamiento todos sus saberes lingüísticos y cognitivos en forma de estrategias y micro habilidades. De esta forma, el lector y escritor van construyendo su propio conocimiento.

Ferreiro eta Teberoskyk (1979) eta Teberoskyk (1989), beste batzuen artean, Josefina Pradok (2004) aipatua, erakusten dute umea irakurtzen hasi aurretik, idatzizko kodea ezagutzuz doala ingurunea ezagutzen duen heinean. Subjektu aktiboa da haurra, hizkuntza idatziaz inguruak ematen dion informazioa bilatu eta lantzen duena (Ferreiro eta Teberosky, 1979). Haurra inguruan daukan hizkuntza idatzia ulertzen saiatzen da, hipotesiak eta interpretazioak eginez. Hori dela eta, haurrek eskolara heltzean hizkuntza idatzari buruzko aurre iritzi batzuk dituzte, gurasoak idazten edo irakurtzen ikusten dituztelako eta testu inprimatuak ezagutzen dituztelako, hain zuzen ere. Ildo honetatik, konstruktibismoak haurrek zer dakiten ezagutzea proposatzen die irakasleei, dakitenaren eta eskolak ematen dienaren arteko loturak egiteko. Ikuspegi honek, haurrek euren ikasketa prozesuaren protagonistak bihurtzea proposatzen du. Era honetan, haurrek hizkuntza idatzari buruzko jakintzak eraikitzen joango dira, euren hipotesiak eta interpretazioak eginez eta hauek egiaztatuz.

1.3. Irakurtzeko eta idazteko prozesuen faseak

Ikuspuntu honetatik, irakaslea haur bakoitzak dakiena ezaguturik, beharrezko baliabideak eskainiko ditu irakaskuntza sustatzeko. Hala ere, haur bakoitzak hizkuntza idatzari buruz duen jakintza ezberdina izaten da, horregatik ezinbestekoa zaigu irakurketa eta idazketaren faseak ezagutzea. Faseak ezaguturik, haur bakoitzak norantz jotzen duen eta nola lagundu ahal zaion jakin dezakegu. Esan beharra dago, autore gehienek irakurketan hiru fase bereizten dituztela, nahiz eta bakoitzak fase horiek izendatzeko izen ezberdinak erabili. Frithek (1989), Bigasek eta Montserrat Correigek (2000) aipatua, honela sailkatzen ditu: fase logografikoa, fase alfabetikoa eta fase ortografikoa.

A) Fase logografikoa haurra mundu idatziaz interesa erakusten duenean hasten da.

Fase honetan, haurrak ahozko eta idatzizko hizkuntzaren arteko erlazioak egiten

ditu eta irakurtzeko ekintza imitatzen du. Gainera, hitz idatzi batzuk ezagutzeko gai da, bere izena edo ipuinen izenburuak, besteak beste. Momentu honetan, haurra helduei galdetuz eta, batez ere, helduak imitatuz eskuratzen du informazioa.

- B) Fase alfabetikoan haurrak kontzientzia fonologikoa bereganatzen du, hau da, hitzak fonemez osatuta daudela konturatzen da eta hizkiez adierazten direla ere. Haurra deskodifikatzen hasten da eta hori izango da bere motibazioa, nahiz eta esanahiaz ez arduratu.
- C) Fase ortografikoan, haurrak testu idatziaren ulermen globala egiten du, hau da, testu osoaren esanahia bilatzen du. Izan ere, irakurtzeko testuinguru semantikoak, sintaktikoak eta morfologikoak kontuan izaten ditu.

Irakurtzen ikasi ahala, ikasleek idazten ere ikasten duten arren eta irakurketaren eta idazketaren garapen faseak erlazionaturik badaude ere, prozesu biak banandutako faseetan aurkezten dira. Teberoskyk (1999) idazketa prozesuan hurrengo faseak definitzen ditu: Imitazioaren fasea, idazkera bereizien fasea, zatitze-silabikoaren fasea, zatitze silabiko-alfabetikoaren fasea eta zatitze alfabetikoaren fasea.

- A) Imitazioaren fasean, haurrak idazte ekintzaren zeinuak imitatzen ditu, hots, lerroka idazten dela eta elementu grafikoak banatu behar direla daki. Hitza eta objektuaren arteko harremana dagoela uste du.
- B) Idazkera bereizien fasean, haurraren forma grafikoak hizkietara hurbiltzen hasten dira. Hizkiak irudikatzeke gai izango da, baina horrek ez du balio fonetikorik izango.
- C) Zatitze-silabikoaren fasean, haurra idatziak ahozko hizkuntzaren soinuekin harremana duela eta aldi berean, hitzen zatitze silabikoaz konturatzen da. Haurrarentzat, silaba bat soinu bat izango da, beraz hizki bat irudikatuko du. Fase honetan haurrak gatazka kognitiboa izaten du, gutxieneko kantitate eta kalitatearen inguruan.
- D) Zatitze silabiko-alfabetikoaren fasean, idatziaren eta ahozko hizkuntzaren arteko korrespondentzia aurkitzen du haurrak. Kontzientzia fonologikoa hartzen du, hau da, konturatzen da silaba bakoitzean fonemak daudela. Hala ere, haurrak arazoak topatuko ditu fonema guztiak identifikatzeko eta irudikatzeke.

E) Zatitze alfabetikoaren fasean, haurrak hizkuntza idatziaren kodea ondo ezagutzen du eta ahoskatu ahal duen guztia paperean idatz dezake. Dena den, alderantzizko eta silaba trabatuekin zailtasunak erakusten ditu eta oztopo ortografikoak ere bai.

1.4. Irakurtzeko eta idazteko zailtasunak

Haurrak irakurtzen eta idazten hasten direnean eta fase horietatik igarotzen diren heinean, zailtasun eta arazo ezberdinekin topatzen dira. Irakurtzen eta idazten ikasteak, haurrei ekintza konplexu ezberdinak koordinatzea eskatzen die, hori dela eta ikaskuntza hau batzuetan arazo bihurtzen da haurrentzat eta baita irakasleentzat ere. Alde batetik, haur askok euren adinerako errendimendu eta adimen-koziente arrunta daukate, baina hizkuntza idatziaren konplexutasuna dela eta, bidean arazoak topatzen dituzte. Bestalde, beste haur batzuk trastornoak edo zailtasun espezifikoak dituzte. Trastornoaz mintzatzen garenean, denbora luzean irauten duen eta arazo neurobiologiko batekin lotuta dagoen zailtasun batez ari gara eta hauen ondorioz, hurrek ezin dute hizkuntza idatziaren gaitasuna normalki garatu.

Hizkuntza idatziaren trastornoen barnean disgrafia, distografia eta dislexia bereiz ditzakegu. Disgrafia idazketan edo grafian gertatzen diren alterazioak dira, baina ez dago hori azaltzen duen atzerapen mentalik ezta arazo neurobiologikorik ere. Zailtasun hori duten haurren grafiak ia ezagutezinak dira eta antolaketa falta dute. Bestalde, distografia duten hurrek, idazketan arazo gramatikalak dituzte, adibidez, “v-b” edo “s/z” nahastea, ordezkapenak egitea edo grafemen errotazioak egitea, besteak beste. Hala ere, gaur egun trastornorik ezagunena dislexia da.

Ikasteko zailtasun espezifiko bat da dislexia, eta jatorri neurobiologikoa du. Bere ezaugarri nagusiak dira hitzak zehaztasunez eta arintasunez ezagutzeko zailtasunak izatea eta haiek letreiatzeko eta deszifratzeko trebetasun eskasa izatea. Zailtasun horien jatorria, oro har, hizkuntzaren elementu fonologikoaren gabeziak izaten dira [...] Dislexiaren bigarren mailako ondorioak izan daitezke irakurritakoa ulertzeko arazoak izatea eta irakurtzeko eskarmentu edo praktika gutxi izatea [...] (Dyslexia Working Group, 2002: 9. or.)

Aipatu beharra dago, hurrek zortzi urte bete arte ezin dela dislexia modu fidagarrian diagnostikatu, hala ere, horrek ez du esan nahi trastornoaren adierazleak

antzematen baditugu erantzun behar ez dugunik. Are gehiago, Antonio Vallesek (1984), haur dislexikoek eta haur ez dislexikoek irakurketan eta idazketan egiten dituzten akatsen eta baita irakasleentzako erabilgarriak izan daitezkeen alerta adierazleen zerrenda eskaintzen digu:

- Asmakizunak: hizkiak edo silabak asmatzea, agertzen ez diren hitzak asmatuz.
- Bazterkeria: hitz bat baztertzea, hori nola irakurri behar den ez jakiteagatik.
- Bazterketa: hizki bat edo gehiago ez irakurtzea edo idaztea.
- Burua mugitzea: lerroaren noranzkoari begien eta buruaren mugimenduekin jarraitzea.
- Errepikapena: hitza, silaba edo hizki bera behin baino gehiagotan irakurtzea.
- Inbertsioa: hizkien hurrenkera logikoa aldatzea.
- Kutsadura: bi hitz edo gehiago elkartzea.
- Oratzea: idazkailuaren eta eskuaren arteko erlazioa: jarrera egokia edo desegokia.
- Ordezkapena: hizki batzuk besteen ordez idaztea edo irakurtzea.
- Orientazioa: marra, uztai eta kiribilen norabidea eta errotazioa.
- Txandaketa: hitz antzeko bi nahastea, bata bestearen ordez erabiliz.
- Ulermenik ez: haurrak ez du ulertzen irakurtzen duena.
- Uztaiak: grafietan egiten diren uztaiak eta kakoak nola egiten dituen haurrak (m, n, b, s...).
- Zalantza: hitza, silaba edo hizki baten aurrean zalantzak izatea eta hori irakurri aurretik isilik geratu.
- Zatiketa: silaba eta hitzen ez-ohiko zatiketak eta banaketak egitea.

Ferdinandek (1965), Tordrupek (1963) eta Eva Malquistek (1958), Antonio Vallesek (1984) aipatua, haur dislexikoen eta ez dislexikoen akatsen artean ezberdintasun esanguratsurik ez dela baieztatzen dute. Hala nola, aurreko akatsez gain, Josefina Pradok (2004), hurrengo akats hauek gaineratzen ditu:

- Lerroen aldatzea: Espazioa eta ikus-eremua behar bezala ez hautemateagatik, lerro batetik bestera igarotzea edo lerro-aldaketan behar ez dena aukeratzea.
- Seinalatzea: Atzamarrez edo arkatzez lerroei jarraitzea.
- Silabetan zatikatzea: Astiro irakurtzea silabaka.

Dena den, esperientziak erakutsi digun moduan, badaude hurrek egiten dituzten oinarritzko beste akats batzuk:

- Grafia identifikatzea: Grafiaren irudia identifikatzeko zailtasuna.
- Grafia irudikatzea: Behin fonema identifikatuta, grafia fisikoki adierazteko zailtasuna.
- Norabidea aldatzea: Ezkerretik eskuinera idatzi beharrean, kontrako norabidean idaztea.

Irakasleen lana, hurrengan arreta jartzea da, aurretik aipatutako arazo horiek aurreikusteko eta horiek ahal den neurrian zuzentzeko. Horretarako, irakasleek ere euren lanaren gaineko hausnarketa egin behar dute eta hurrei ikaskuntza ahalik eta ondoen erraztu ere bai. Hori dela eta, irakasleek ikasteko eta egungo metodologia berrietara egokitzeko prest egon behar dute. Gaur egun, esperientziak erakusten digunez, irakurtzen eta idazten irakasteko metodo erabilgarrienak metodo sintetikoak dira. Metodo hauek hizkuntzaren unitate txikienetatik abiatzen dira, gero unitate hauek elkartzen joateko.

Hizkuntza idatzia era honetan lantzen bada, hurrek ez daukate horren funtzionalitatea ikusteko aukerarik. Gainera, irakasleen eta ikastetxeen gabeziek irakaskuntza eta hurren ikaskuntzaren prozesua guztiz baldintzatzen dute. Beraz, zergatik ez diogu esanahiari eta erabilgarritasunari lehentasuna ematen? Zailtasunak eta arazoak aurreikusteko biderik hoberena, hizkuntza idatziaren funtzionalitatea lantzea da eta.

2. METODOLOGIA

2.1. Helburua

Lan honen helburu nagusia da hasierako alfabetatzean hizkuntza idatzian sortu daitezkeen arazoak eta horren irakaskuntzan egon daitezkeen gabeziak aztertzea. Haur Hezkuntzan sor daitezkeen arazoak eta eskoletan dauden gabeziak identifikatzen baditugu eta horiei erantzuna ematen badiegu, Lehen Hezkuntzan hurrek arazo

gutxiago topatuko dituztelakoan gaude. Hori aztertzeko, lehenengo eta behin, ikerketa bat egingo dugu.

Alde batetik, badakigu, hizkuntza idatziaren eragozpenak eta arazoak lehen hezkuntzan diagnostikatzen direla batez ere, hizkuntza idatziaren derrigorrezko hezkuntza ziklo horretan hasten baita. Hala ere, haur hezkuntzan hizkuntza idatziarekiko lehenengo arazoak aurreikusi daitezkeelakoan gaude. Bestalde, irakasleek hizkuntza idatziaz duten formakuntzak eta ezagutzak ere haurrek izan ahal dituzten arazoetan eragin ditzaketela uste dugu. Hortaz, haurrek irakurketarekin eta idazketarekin duten lehenengo harreman horretan izan ahal dituzten akatsak edo oztopoak ezagutu nahi ditugu eta irakasleek hizkuntza idatziaz dituzten jakintza eta aurreiritziak ere.

Hori guztia kontuan harturik, ikerlan honek asmo didaktiko garbia izango du. Hemen proposatzen den ikerketak balioko du, orobat, aurretik aipatutako arazoak eta eskola-irakasleen gabeziak ezagutzeko, eta ondoren horiek aurreikusteko proposamen didaktiko bat egin ahal izateko.

2.2. Hipotesiak

Ikerketa hau burutu aurretik eta marko teorikoan aipatutako zenbait datu kontuan izanda, lanean ondoko hiru hipotesi hauetatik abiatu gara:

1. Irakasleek hizkuntza idatzian dituzten gabeziek irakaskuntza eta haurren ikaskuntza prozesua guztiz baldintzatzen dute.
2. Irakasleek hizkuntza idatzia irakasteko erabiltzen dituzten zenbait metodok ez dute haurren ikasteko modua kontuan hartzen.
3. Haur hezkuntzako ikasle gehienek hizkuntza idatzian antzeko gabeziak dituzte.

Hipotesi horiek egiaztatzeko, ikerketa bat egingo dugu. Ikerketa honetan, alde batetik datu kuantitatiboak lortuko ditugu eta beste aldetik, horien balorazio kualitatiboa egingo dugu. Ondoren datu horietatik lortutako ondorioak kontuan izanda, bukaeran arazoak eta eskola-irakasleen gabeziak aurreikusteko proposamen didaktiko bat aurkeztuko dugu.

2.3. Baliabideak

Datuak biltzeko, galdera-sorta¹ inkesta teknika aukeratu dugu. Galdera-sorta, ikerkuntza arazolari buruzko galdera edo itemez osatutako tresna bat da, non erantzunak idatziz eman behar diren. Horren bitartez datu objektiboak, lortu ahal ditugu, geroago horiek baloratu ahal izateko. Gainera, fidagarritasun handiko tresna da eta datuen arteko erkaketa ahalbidetzen du.

2.4. Lagina

Ikerketa burutzeko, aukeratutako lagina Barakaldoko (Bizkaia) hiru eskolek osatzen dute, Barakaldoko Salestarrek, Arteagabeitia eta Munoa eskolek, hain zuen ere. Eskola hauek aukeratu dira, antzeko egoera soziolinguistikoa dutelako eta horrela emaitzak hobeto aldera daitezkeelako. Eskolak ezberdinak izan arren, testuinguru berean kokatuta daude, beraz antzeko ezaugarriak dituzte, hala nola, famili ereduak eta hizkuntza egoera. Behin eskolak aukeratuta, Haur Hezkuntzako 5-6 urteko bi irakasle aukeratu ditugu galdera-sorta erantzuteko, guztira 6 irakasle. Ikasturte hau aukeratu dugu, irakurketak eta idazketak presentzia nabarmena izaten duelako gelan, hortaz irakasleek zailtasunak antzemateko aukera dute. Inkestak lantokian, hau da, eskolan egingo dira, irakasleei alde aurretiko baimena eskatu eta ikerketaren nondik-norakoak azaldu ostean.

Inkestak aste batean egingo dira 2014ko martxoko bigarren astean, hain zuzen ere. Lana errazteko eta denbora aurrezteko, egun batean eskola bereko bi irakasleri egingo diegu galdera-sorta, baina bakoitzak berea bete beharko du. Galdera-sorta bete aurretik, irakasleei gelaren testuingurua kokatzeko hiru galdera zehatz egingo zaizkie:

- Zenbat haur daude gelan?
- Premia bereziko haurrik al dago? Egotekotan, zein da bere premia berezia?
- Atzerritik etorritako haurrik al dago?

¹ Baliteke elkarrizketatuek galdera baten erantzuna ez jakitea, ezjakintasunagatik, erantzuna ahaztu duelako edo trebetasunik ez duelako. Hala ere, arazo nagusia sortzen da elkarrizketatuek erantzuna zein den ez dakitela onartu nahi ez dutenean edo inkestagilea pozik uzteko asmoz erantzuna asmatzen dutenean. Inkestan parte hartzen dutenek probabilitate handia dute ezjakinak izateko (hau da, erantzuna ez jakitea), erantzuteko gaitasunik ez dutenean. Kasu hau ematen bada, ikertzaileak galderen azalpen teorikoa emango du. Horretaz gain, ikertzaileak zaila izan daitekeen galderari buruzko azalpena idatziz eramatea lagungarria izango da. Bestalde esan, balitekeela elkarrizketatuak erantzuteko gai ez izatea, erantzunik ezin duelako formulatu.

Aurretik aipatutako lehenengo galdera, eskola eta gela bakoitzean dagoen haur kopurua ezberdina delako eta horrek erabiltzen den metodologian eragin ahal duelako aukeratu dugu. Bigarren eta hirugarren galderak, aldiz, gela batean premia bereziak dituzten edo atzerriko haurrak baldin badaude eurek izan ahal dituzten zailtasunak desberdinak izan daitezkeelako aukeratu dugu. Galdera ireki hauen erantzunak orri batean apuntatuko dira eta jarraian, galdera-sorta (Ikus I. eranskina) erantzutera ekingo da.

3. LANAREN GARAPENA

3.1. Inkestaren diseinua

Datuak biltzeko teknika diseinatzerako orduan, marko teorikoan jorratutako kontzeptuak erabili ditugu. Gure ikerketaren helburuaren atal bat hurrek hizkuntza idatzian izaten dituzten arazoak ezagutzea denez, galdetegian Antonio Vallesek (1984) eta Josefina Pradok (2004) aipatzen dituzten hizkuntza idatziaren ohiko akatsak erabili ditugu, irakasleek horietatik hurrek gehien errepikatzen dituztenak aukeratzeko. Gainera, horiei buruzko informazio gehiago lortzeko, akats larrienak zein diren kuantifikatzeko eta horiek zergatik gerta daitezkeen azaltzeko eskatu zaie. Horrez gain, irakasleek hizkuntza idatziaz duten ezagutza jakiteko, hizkuntza idatzia nola ulertzen duten, zein metodo erabiltzen dituzten eta euren geletako haurrak zein irakurketa eta idazketa fasetan kokatzen diren jakin nahi izan dugu. Galdetegian, ikerketa oinarri izanda egingo dugun proposamen didaktikoa diseinatzeko orduan ideiak eskuratzeko, galdera bi diseinatu ditugu: batean, irakasleen ustez, oztopo horiek nola aurreikusi daitezkeen jakin nahi izan dugu eta, bestean, zailtasunak susmatzen dituztenean zein protokoloa jarraitu behar duten.

Hori guztia aztertzeko, hiru orriz osatutako idatzizko galdera-sorta sortu dugu (Ikus I. eranskina). Hiru orrialde horietan hamaika galdera ireki eta itxi daude. Galdera itxien aukerako erantzunak alde aurretik erabaki dira galdera-sorta diseinatu denean, galdera irekien kasuan, aldiz, erantzuleak askatasun osoa izan du nahi duena erantzuteko. Informazioari dagokionez, galdera itxiek eman diguten informazioa murrizta izan da, baina informazioaren tratamendua errazagoa izan da; galdera irekiek, berriz, informazio gehiago eman digute, baina hau antolatzea eta aztertzea zailagoa izan da. Alde batetik,

galdetegiko 1, 5, 6 eta 9 galderak itxiak dira eta hauetan erantzuleak hiru, lau edo bost aukeren artean bat aukeratu behar izan du “X” batekin adieraziz. 5 eta 6 galderetan erantzuleak, ezjakintasunagatik, zailtasunak izan ahal dituela ulertuta, bertan agertzen diren aukeren azalpen teorikoa (Ikus II. eranskina) galdetegian erantsi da. 7. galdera ere itxia izan da, baina honetan erantzuleak zerrenda luze batean bost aukera adierazi behar izan ditu. Beste aldetik, 2, 3, 4, 10, 11 eta 12 galderak irekiak dira eta bertan erantzuleak bere iritzia edo jakinduria adierazteko askatasuna izan du. 8 galderan erantzuleak akatsak kuantifikatu behar izan ditu 1etik 5era larrienak zein diren adieraziz, eta 10. galderan hauek zergatik gertatzen diren erantzuten saiatu ere.

Aipatu beharra dago, galdera batzuetan zenbait hitz azpimarratu direla, irakurleak horietan arreta handiagoa jartzeko eta galderaren helburutik ez urruntzeko.

3.2. Eremu geografikoa

Metodologia atalean aipatu dugun moduan, inkesta burutzeko aukeratu dugun eremua Barakaldo izan da. Barakaldo Bizkaian kokaturiko udalerria da, Bilbo handiaren eskualdean kokatua dagoena. Bizkaiko herri jendetsuena da Bilbo ondoren, eta Euskal Herriko laugarren herri populatuena da, 99.483² biztanlerekin. Populazio honen % 6,9 atzerritarrek osatzen dute.

Barakaldoko hizkuntzari dagokionez, udalerria erdalduna da, hau da, biztanle gehienek ez dakite euskaraz mintzatzen. Izan ere, biztanleriaren %10 soilik euskara menperatzen du. Etxeko hizkuntzari erreparatuz, gehiengoaren hizkuntza gaztelania da.

Aurretik aipatu dugun moduan, Barakaldon biztanle ugari daude, hori dela eta ikastetxe ugari daude, haur hezkuntza eta lehen hezkuntza eskaintzen duten, 21 eskola pribatu eta publiko, hain zuzen ere, 0-2 urteko haur eskolak kontuan izan gabe. Horietatik, % 57,14 publikoak dira eta % 42,86 pribatuak.

3.3. Laginaren ezaugarriak

² EUSTAT erakundeko 2013ko datuak. Erakunde publiko hau, Euskal Autonomi Erkidegoko eta gure erkidegoko gizartearen eta ekonomiaren alderdi guztiei buruzko estatistika-informazioa biltzeaz, aztertzeaz eta zabaltzeaz arduratzen da.

Lagina Barakaldoko hiru eskolek, Barakaldoko Salestarrak, Arteagabeitia eta Munoa osatzen dute. Hauek udalerriko eskola guztien % 14,3 ordezkatzeko dutelarik. Eskola horietatik, 5-6 urteko geletako irakasleak aukeratu dira, guztira sei irakasle. Lagina osatzen duten irakasleen adina 30-50 urte bitartekoa da eta gehienek esperientzia handia dute eskoletan. Hala ere, horietako bik, gazteenek, esperientzia laburragoa dute.

Eskolen ezaugarriei dagokienez, Barakaldoko Salestarrak, Barakaldo udalerraren erdigunean kokatuta dagoen eskola kontzertatu eta kristaua da. Eskola honek 3 urtetik Batxilergorainoko hezkuntza eskaintzen du, A eta B ereduetan. Eskolaren ikusmoldea kristaua da eta Juan Bosco Deunaren ereduari jarraitzen dio. Arteagabeitia eskola publikoa da eta Arteagabeitia auzoan kokatuta dago, BECen³ ondoan, hain zuzen ere. Eskola honek 2 urtetik 12 urtera bitarteko hezkuntza eskaintzen du soilik D ereduari. Bestalde, Munoa ikastetxe publikoa Lutzana-Llano auzoan kokatuta dago, Gurutzeta ospitaletik oso gertu. Eskolak Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza eskaintzen ditu, 2-12 urte bitarteko haurrak hartuz. Eskolan bi lerro daude LHko 2.mailara arte eta lerro bakarria gainontzeko mailetan.

Eskola hauetako 5-6 urteko geletako bina irakasle aukeratu ditugu galdera-sorta erantzuteko. Galdera-sortarekin hasi aurretik, metodologian zehaztutako zenbait galdera egin dizkiegu, zeinetatik hurrengo informazioa lortu dugun:

- Barakaldoko Salestar eskolako gela batean 27 haur daude, horietatik bi atzerritarrak dira eta haur batek hezkuntza premia bereziak ditu, ataxia dauka, hain zuzen ere. Beste gelan beste 27 haur daude, horietatik bi atzerritarrak dira eta ez dago hezkuntza premia bereziko haurrik.
- Arteagabeitia eskolari dagokionez, gela batean 22 haur daude, horietatik bi atzerritarrak dira eta beste bik hezkuntza premia bereziak dituzte, zehazki autismoa eta adimen-atzerapena. Beste gelan, aldiz, 23 haur daude eta batek heldutasun atzerapena dauka.
- Munoa eskolako gela batean 15 haur daude, horietatik bat kanpotarra da eta beste gelan, 14 haur daude.

³ Bilbao Exhibition Center.

3.4. Datu bilketaren prozedura

Metodologia atalean aipatu dugun moduan, datu bilketa 2014 martxoko bigarren astean egin dugu. Horretarako, hilabete bat lehenago, eskola bakoitzeko irakasleekin kontaktuan jarri behar izan dugu baimena eskatzeko. Horretarako, hiru eskoletara hurbildu gara eta bertako zuzendariei edo ikasketa buruei 5-6 urteko geletako irakasleekin hitz egiteko eskatu diegu. Behin irakasleekin harremanetan jarrita, ikerketari buruz informazioa eman zaie: zertarako den ikerketa, zer egingo den, zer espero den edo emaitzen erabilera zein izango den, besteak beste. Informazioa eskaini ostean, irakasle guztiek baimena eman dute, orduan haiekin galdera-sorta egiteko eguna eta ordua adostu dugu. Galdetegiak egin bitartean, irakasleek ikerketarako interesgarriak izan zitezkeen galderak, zalantzak eta komentarioak egiten zituzten. Hau dela eta, guzti hori paperean erregistratzea erabaki zen.

Munoa eskolako irakasleek oso jarrera positiboa izan dute, inkestan arreta handia eta kontzentrazio handia jarriz. Hala ere, zenbait galderetan zalantzak izan dituzte: 5 eta 6 galderetan (irakurketa eta idazketa faseen galderak) ezjakintasuna erakutsi dute eta horren azalpena eman behar izan diegu. Irakasle bietatik, gazteena, 7. galderan (akatsen zerrenda) aukera guztiak aurrean markatu ditu, atzealdean aukera gehiago zeudela kontuan izan barik. Honez gain, bi irakasleek gaia oso sakona dela eta paperean plasmatzeko gauza gehiegi direla adierazi dute. Bestalde, deigarria da bi irakasleek 2 eta 3 galderak (idaztea eta irakurtzea zer da galdetzen dutenak) bukaerarako utzi dituztela. Galdetegiaz gainera, irakasleek eskola horretan Haur Hezkuntzako gutxiengoa izenak identifikatzea dela gaineratu dute.

Barakaldoko Salestarretako irakasleen jarrera ere oso positiboa izan da eta horrek euren lanaren gainean hausnartzeko eta ikasteko aukera ematen diela adierazi dute. Munoa eskolan bezala, irakasle biek 2 eta 3 galderak bukaerarako utzi dituzte eta horietan pentsatzeko denbora gehiago eman dute. Eskola honetako irakasleek ere, irakurketa eta idazketa faseen aurrean zalantzak erakutsi dituzte eta azalpen teorikoa eman behar izan zaie. 11. galderan (akatsak nola aurreikusi galdetzen duen galderak) irakasle biek ezjakintasuna adierazi dute “aurreikusi” hitza ondo ulertu ez dutelako. Bestalde, irakasle batek galdetegia ikasturte hasieran edo orain ikasturte bukaeran egitearen ezberdintasuna azpimarratu du, momentu honetan hurrek dituzten zailtasunak

ikasturte hasierakoak ez direlako. Honetaz gainera, eskola horretan Lehen Hezkuntza eta Haur Hezkuntza artean hizkuntza idatziaren inguruan dagoen desadostasunen berri eman dute. Haur Hezkuntzan euskaraz hasten dira hizkuntza idatziarekin eta Lehen Hezkuntzan, berriz, gaztelaniaz jarraitzen dute. Gainera, Lehen Hezkuntzako irakasleek Haur Hezkuntzako irakasleei bestelako gaitasunak eta ez hizkuntza idatzia landu behar direla aurpegiatzen diete.

Arteagabeitia eskolako irakasleek, aldiz, galdetegian izan duten ezjakintasuna dela eta, nekea erakutsi dute. Irakasle biek, galdera gehienetan zalantzak izan dituztenez bata bestearekin hizketan hasi dira, hori dela eta inkesta luzatzen joan da eta horrekin batera erantzunen zehaztasuna murriztuz ere. Hala ere, beste irakasleek bezala, 2 eta 3 galderak bukaerarako utzi dituzte eta faseen galderetan zalantza eta aldi berean interesa erakutsi dute. Honez gainera, 11. galderan “aurreikusi” hitza ulertzeko zailtasunak izan dituzte. Bestalde, haiek idazketa bakarrik lantzen dutela gaineratu dute, irakurketa horren ondorioa delako.

Galdera-sorta, orokorrean, erantzuteko zaila egin zaie irakasleei, batez ere 2, 3 eta 11. galderak. Bestalde, aipatu beharra dago, lehenengo galdetegiak egin zirenean 10. galdera moldatu zela. Galdera horretan, akats bakoitza zergatik gertatzen den erantzun behar zen, baina akatsak orokorrean zergatik gertatzen diren erantzutea errazagoa zela pentsatu da.

4. EMAITZAK

Barakaldoko hiru ikastetxeko sei irakasleek erantzundako galdera-sortaren datuak aztertu ondoren, hurrengo atalean erantzun horietatik lortutako informazioaren berri emango dugu. Informazioa era antolatuan aurkezteko, galdetegian jorratzen diren gai ezberdinetatik abiatuko gara.

4.1. Irakurketa eta idazketa lantzen hasteko adina

Aztertutako hiru eskoletan, haurrak 3 urteekin hasten dira irakurtzen eta idazten. Irakasleen arabera, haurrak adin horrekin euren izena idazten hasten direnez, irakurketarekin eta idazketarekin hasten direla esan dezakete. Aipatu beharra dago, Arteagabeitia eskolako irakasleek, zehazki, irakurketa eta idazketa batera doazela

aipatzen dutela, baina euren haurrak bost urte izan arte irakurtzen hasten ez direla esaten dute, irakurketa idazketaren ondorioztat hartzen dutelako.

4.2. Irakurtzea eta idaztea definitzen

Irakurtzea eta idaztea definitzeko orduan, orokorrean, zailtasunak erakutsi dituzte, hala ere, informazio interesgarria eskaini digute. Irakurtzea zer den kontzeptua definitzerakoan, irakasleen erdiek, irakurketa *ulermenarekin* erlazionatzen dute. Ulermenarekin erlazionatzen duten irakasleek, euren artean definizio guztiz ezberdinak egiten dituzte, baina “ulertzea edo ulermena” hitzak aipatzen dituzte. Huetako batek, informazio gehiago gaineratzen du, haurrak ulertzen hasi aurretik *deskodifikatzen* hasten direla gaineratuz. Bestalde, irakasleen beste erdiek ez dute irakurketa ulermenarekin identifikatu. Horietariko batek *irudimenarekin* lotzen du, beste batek irakurtzea idaztea baino konplexuagoa dela dio, eta bestearentzat, hitzek duten *esanahia deszifratzea* irakurtzea da.

Idaztea zer den kontzeptuari dagokionez, irakasle bik, idaztea *komunikatzeko tresna* bat dela diote. Beste bik, *gauzak paperean islatzearekin* erlazionatzen dute idazketa, eta gainontzekoek definizio ezberdinak ematen dituzte. Azken huetako batek aipatzen du idaztea hizkien fonemak jakitea eta horiek esanahia lortzeko elkartzea dela. Besteak, aldiz, esku trebetasuna indartu behar dela dio, ondoren *ideiak plasmatzeko*.

4.3. Irakurtzen eta idazteko metodologiak

Irakasleen erdiek *metodo globalak* erabiltzen dituztela aipatzen dute, baina bakoitzak metodo hori era ezberdin batean azaltzen du. Horietako irakasle bik, forma globaletik hasten direla esaten dutenean, *testuekin hasten direla* esaten dute. Besteak, aldiz, *izenenekin eta hitzekin hasten direla* esaten du eta horri metodo globala deritzo.

Bestalde, beste irakasle bi hizkuntza idatziaren *unitate minimoetatik hasten dira*; batek hizkiak lantzen ditu, gero hitzak lantzeko eta besteak, hitzak silabaka zatitzen ditu. Honez gain, azken irakasleak ikuspegi *konstruktibista* jarraitzen dutela dio.

4.4. Irakurketa eta idazketa faseak

Haurrek zein irakurketa eta idazketa fasean kokatzen diren jakin nahi izan dugu, horrek euren hizkuntza akatsetan zuzenean eragin dezakeelako. Eskola eta gela

guztietako haurrak, orokorrean, irakurketaren fase alfabetikoan kokatzen dira. Idazketari dagokionez, bi eskola, beraz lau geletako haurrak zatitze silabiko-alfabetikoaren fasean kokatzen dira eta beste eskolakoak, nahiz eta maila berean egon gela bakoitza fase ezberdinean kokatzen dira; gela bat idazkera bereizien fasean eta bestea zatitze silabikoaren fasean, hain zuzen ere. Aipatu beharra dago, gela guztietan erritmo ezberdineko haurrak daudela, baina datu hauek haurren gehiengoari egiten diote erreferentzia.

4.5. Ikasleek hizkuntza idatziaren hastapenean izan ahal dituzten akatsak

Irakasleei akats ezberdinen zerrenda luzea eskaini zaie (marko teorikoan zerrenda azalduta agertzen da) eta horietatik bakarrik batzuk identifikatu dituzte, besteak bazterturik utziz. Hurrengo taula honetan *identifikatu dituztenak eta baztertu dituztenak* ikus daitezke:

<i>Irakasleek identifikatu dituzten akatsak</i>	<i>Irakasleek identifikatu ez dituzten akatsak</i>
Grafia irudikatzea	Asmakizunak
Ordezkapena	Bazterkeria
Norabidea aldatzea	Gain-idazketa
Oratzea	Grafia identifikatzea
Inbertsioa	Lerroen arteko tartearak
Silabetan zatikatzea	Orientazioa
Kutsadura	Seinalatzea
Bazterketa	Tipografia ez ezagutzea
Zalantza	Uztaiak
Ulermenik ez	Zatiketa
Txandaketa	
Errepikapena	
Burua mugitzea	
Lerroen aldatzea	
Orientazioa	

1. taula. Zerrendatik identifikatu eta identifikatu gabeko akatsak.

Irakasleek identifikatu dituzten akatsen artean, badaude hurrek gehien errepikatzen dituzten akats batzuk. Hurrengo taulan, irakasleen arabera, hurrek *gehien errepikatzen dituzten akatsak* eta zenbat irakasleek akats hori aukeratu duten ikus daiteke:

<i>Irakasle kopurua</i>	<i>Gehien errepikatzen dituzten akatsak</i>
4	Inbertsioa
3	Grafia irudikatzea, norabidea aldatzea eta silabetan zatikatzea.
2	Ordezkapena, oratzea, kutsadura, bazterketa, zalantza eta ulermenik ez.
1	Txandaketa, errepikapena, burua mugitzea, lerroen aldatzea eta orientazioa.

2. taula. Hurrek gehien errepikatzen dituzten akatsak.

Aurreko taulan, irakasleek hurrek gehien errepikatu ahal dituzten akatsak adierazi dituzte, baina hurrengo galdera batean horietatik *larrienak* aukeratzeko (1etik 5era adieraziz) eskatzen zitzairen. Hala ere, galdera horren erantzunetan ez da batasunik egon, ez eskolen artean ez eskola bereko irakasleen artean ere. Irakasle bakoitzak, bere geletako hurrak zein fasetan kokatuta dauden ezaguturik, akats batzuk edo besteak aukeratu ditu larriagotzat. Halaz ere, irakasle bakoitzak akats horien larritasuna era ezberdinean neurtu du:

- *Inbertsioa*. Hiru irakasleentzat, *inbertsioa* akats larrienetarikoa da. Hirurek, hirugarren lekuan kokatu dutelako.
- *Ordezkapena*. Bi irakasleentzat, *ordezkapena* larria da. Biek, lehenengo lekuan kokatu dutelako.

- *Grafia ez irudikatzea*. Hiru irakasleentzat *grafia irudikatzen* ez jakitea akats larria izan daiteke. Hirurek, lehenengo hiru lekuetan kokatu dutelako, nahiz eta orden ezberdinean jarri.
- *Ulermenik ez*. Barakaldoko Salestarretako irakasleentzat haurrek irakurtzean *ulermenik ez* izateak larritzat hartzen dute.

Bestalde, aipatu beharra dago, irakasle guztiak galdera-sortaren 9. galderan erantzun dutenaren arabera, haurrek egin ditzaketen akats hauek *hutsegiteak* direla. Haien ustez, haurrek adin honetan izaten dituzten akatsak hutsegiteak dira, hau da, desbideratze aldakorrak. Haurrak batzuetan zerbait txarto egiten du eta beste batzuetan gauza bera ondo egiten du.

4.6. Zergatik egiten dituzte akats horiek?

Galdera honi erantzuteko, irakasle bakoitzak arrazoi ezberdinak erantzun ditu, horren erantzun zehatza jakitea oso zaila egin delako. Hala ere, irakasle gehienek akatsak *heldutasun faltagatik* gertatzen direla uste dute. Horietako irakasle batek, hizkuntza idatzia curriculumaren helburua ez denez eta haurrek prozesu honetarako heldutasun maila nahikoa ez dutenez, haurren akatsak normalak direla aipatzen du. Bestalde, horien erdiek akatsak *arreta faltagatik* ere gerta daitezkeela diote. Horrez gain, bi irakaslek haurrek *ziurtasun falta* izan ahal dutela diote eta beste bik, *metodoa egokia ez dela* aipatzen dute. Izan ere, batek “Agian jarraitzen den metodoa ez delako behar bezala praktikan jartzen” esaten du.

4.7. Irakasleek akatsak aurreikusteko dituzten ideiak

Atal honetan ez dute informazio nabarmenik eskaini, bakoitzak era ezberdin batean interpretatu duelako galdera eta batzuetan horren erantzuna jakin ez dutelako. Hala eta guztiz ere, akatsak aurreikusteko baliagarriak izan daitezkeen zenbait ideia atera ahal ditugu erantzunetatik: Gelan giro ona lortu, akatsak normaltasunez onartu edo *haurren adinaren araberako metodologiak* erabiliz. Bestalde, irakasle batek *akats hauek aurreikusi behar ez direla* aipatzen du, eta beste batek gaineratzen du horiek aurreikusteko *soluzio edo bide bakarra ez dagoela*, bestela denek bide hori jarraituko luketeelako.

4.8. Haurren zailtasunen aurrean jarraitu beharreko protokoloa

Galdera honetan, bi irakaslek ez dute eskolan zailtasunen kasuetan erabiltzen duten protokoloa azaldu, baizik eta akatsak aurreikusteko gomendio gehiago aipatu dituzte. Horretarako batek, ekintza funtzionalen bitartez hizkuntza idatziarekin harremanetan jartzea proposatzen du, adibidez denda bat sortuz edo materialen zerrendak eginez. Bestalde, irakasleen erdiek baino gehiagok protokoloa azaldu dute, gutxi gora-behera eskola guztietan antzekoa izanik: Lehenengo eta behin tutoreak gurasoekin hitz egiten du, geroago aholkulariarekin harremanetan jartzen da eta honek behaketa egiten du, azkenik, behar izatekotan Berritzegunekoekin hitz egiteko. Hala ere, eskola kontzertatuko irakasleek ez dute Berritzegunea aipatzen eta haurrei froga batzuk egiten dizkietela erantzun dute.

5. ONDORIOAK

Lan honen helburua zen hasierako alfabetatzean hizkuntza idatzian sortzen diren arazoak eta horren irakaskuntzan egon daitezkeen gabeziak aztertzea. Helburu hau bete dugulakoan gaude, ikerketaren emaitzak aztertu ondoren, metodologian proposatutako hiru hipotesiak egiaztatu ditugulako. Emaitza horietatik ondorioztatutako ideiak modu argian aurkezteko, hipotesietatik abiatuko gara.

1. *Irakasleek hizkuntza idatzian dituzten gabeziek irakaskuntza eta haurren ikaskuntza prozesua guztiz baldintzatzen dute.*

Irakasleek hizkuntza idatziari buruzko *oinarrizko kontzeptuak beti ez dituztela kontuan hartzen* ikusi dugu. Irakurtzea eta idaztea kontzeptuak definitzeko irakasleek zailtasunak izan dituzte, nahiz eta esan bezala oinarrizko kontzeptuak diren.

Irakurketari dagokionez, ez du inork aipatu irakurleak helburu bat lortzeko irakurtzen duela eta horregatik testua ulertzea dela irakurketaren oinarria. Izan ere, bizitzan normalean zerbait irakurtzen dugunean, helburu bat asetzeko irakurtzen dugu: informazioa bilatzeko, ezagutza areagotzeko, une atsegina izateko... Egia da, irakasleen erdiek irakurketa ulermenarekin erlazionatu dutela, baina, antza denez, haiek erabiltzen dituzten metodoek dekodifikazioa lehenesten dutenez, ez daude ulermenari begira, eta

are gutxiago helburu bat lortzeko bideratuta. Idazketari dagokionez, irakasleek *idazkera eta hizkuntza idatzia kontzeptuak nahastu* dituzte. Hizkuntza idatzia ez da gauzak paperean islatzea ezta ahozko hizkuntza transkribatze soila ere, baizik eta testuak planifikatzeko estrategiak ikastea eta testu esanguratsuak sortzea da. Halaz ere, irakasleen erantzunen arabera, eskolan idazkera lantzen dute, hau da, ahozko hizkuntza transkribatzeko erabiltzen dugun zeinu grafikoen sistema.

Honez gain, euren idazketaren eta irakurketaren definizioetan, *ez da inondik ere hizkuntza idatziaren funtzio soziala aipatzen*. Montserrat Bigasek eta Montserrat Correigek (2000) aipatzen duten moduan, hizkuntza idatzia, idazkeraren bidez ekoizten dugun testua eta horrek duen funtzio edo erabilera soziala da. Hala ere, irakasleek ez diote alderdi horri erreparatu. Beraz, zein helbururekin irakasten diete haurrei irakurtzen eta idazten? Ba al dakite irakasleek zertan datzan hizkuntza idatziaren irakaskuntza?

Bestalde, irakasleek erabiltzen duten metodoa zehazterakoan ere zailtasunak izan dituzte, are gehiago, *ez dute identifikatu erabiltzen duten metodoaren izena*. Haietako erdiek metodo globala erabiltzen dutela aipatzen dute, baina hitz “zabal” hori aukeratu dute erabiltzen duten metodoaren izena zein den esateko arazoak izan dituztelako. Montserrat Bigasek eta Montserrat Correigek (2000) azaltzen duten moduan, metodo globala esaldi batetik abiatzen da eta gero esaldi horren hitzak, silabak eta hizkiak aztertzen dira. Beraz, elkarrizketaturiko irakasleek funtsean erabiltzen dituzten metodoak ez dira globalak, sintetikoak baizik.

2. *Irakasleek hizkuntza idatzia irakasteko erabiltzen dituzten zenbait metodok ez dute haurren ikasteko modua kontuan hartzen.*

Aurretik ikusi dugun moduan, irakasleek hizkuntza idatziaren oinarriko kontzeptuekin dituzten gabeziak kontuan izanda, argi dago erabiltzen dituzten metodoetan alderdi funtzionala eta soziala baztertzen dituztela, irakasle gehienek *metodo sintetikoak erabiltzen dituztelako*. Hau da, unitate txikienetatik abiatzen dira, metodo alfabetikoaren (letren izenetatik abiatuta) edo metodo fonetikoaren bidez (hitzen soinu eta grafiaren arteko korrespondentziaren bidez). Hala ere, metodo horrek ez du haurren ikasteko modua erraztuko, haurrek ikasten dutenaren erabilgarritasuna eta

esanahia ulertzeko aukera ematen ez zaielako. Ikasleak hizkiak errekonozitzen edo silabak ahoskatzen trebatzen baditugu, hau da, batez ere, hizkuntzaren alderdi figuratiboa lantzen badugu, ez dugu euren ikaskuntza prozesua erraztuko. Hori dela eta, konstruktibismoak proposatzen duen moduan, esanahiari eman behar diogu lehentasuna eta ikasten ari diren sistema komunikazio-instrumentu bat dela irakatsi.

3. *Haur hezkuntzako ikasle gehienek hizkuntza idatzian antzeko gabeziak dituzte.*

Irakasleen arabera, bost urteko ikasle gehienek antzeko gabeziak izaten dituzte hizkuntza idatzian. Laburki, hauek dira hurrek gehien errepikatzen dituzten akatsak irakasleen arabera:

- *Inbertsioa*: hizkien hurrenkera logikoa aldatzea.
- *Grafia irudikatzea*: grafiaren irudia edo itxura identifikatzeko zailtasuna.
- *Norabidea aldatzea*: ezkerretik eskuinera idatzi beharrean, kontrako norabidean idaztea.
- *Silabetan zatikatzea*: silabaka astiro irakurtzea.

Irakasleek adierazi duten moduan, haurren akats hauetako larritasuna kokatzen diren faseen arabera izango da. Dena den, irakasleek akats hauetan arreta berezia jarri behar dute, batzuetan akats horiek trastorno baten adierazleak izan daitezkeelako.

Bestalde, irakasle gehienek akats hauek *heldutasun faltagatik* gertatzen direla uste dute. Halaz ere, Santiago Molinak (2001) esaten duen moduan, irakaspen goiztiarra ona da, beti ere haurren garapen prozesuari errespetatzen baldin bazaio eta metodologia natural interaktiboak erabiltzen badira, hori dela eta gakoa ez da heldutasuna baizik eta metodo egokiak erabiltzea. Haurra txikia denean, modu espontaneoan ikasten du, hau da, hizkuntza idatziarekin duen lehenengo harremana modu naturalean gertatzen du. Horrez gain, ezin dugu ahaztu, haur gehienek txikitatik hizkuntza idatziaren oinarria den ahozko kode linguistikoa ezagutzen dutela. Honen ondorioz, horiek dira adin egokienak hizkuntza idatziaren menderakuntza ahalik eta arrakasta handienarekin lortzeko.

6. ARAZOAK ETA GABEZIAK AURREIKUSTEKO PROPOSAMENA

Ikerketan islatu den bezala, Haur Hezkuntzako haurrak hasierako alfabetatzean zenbait arazorekin topatzen dira. Hasiera batean, arazo hauek ikaskuntza prozesuaren barne egon daitezke, baina Lehen Hezkuntzara iristean Haur Hezkuntzako akats horiek trastorno baten adierazle bihurtu daitezke. Horrez gain, ikusi dugun bezala, eskola-irakasleek hizkuntza idatziaren irakaskuntzan zenbait gabezia dituzte eta horiek moduzuzenean haurren ikaskuntza prozesuan eragiten dute. Hori guztia dela eta, Haur Hezkuntzatik arazo eta gabezia horiek aurreikusteko proposamen bat egin nahi dugu, hizkuntza idatzian hurrengo ikasturteetan egon daitezkeen zailtasunak saihestu ahal izateko. Lehen Hezkuntzan zailtasunak ager ez daitezen modurik hoberena Haur Hezkuntzako haurrei behar bezala irakurtzen eta idazten irakastea baita.

6.1. Eskolaren eta ikasgelaren antolakuntza

Antolakuntzaren esparruak eragin handia du irakaskuntzan jarduteko moduan, eta eragin hori positiboa edo negatiboa izan daiteke. Santiago Molinak (2001), ikastetxe guztietan gutxieneko baldintzak betetzen dituen liburutegi bat egon behar dela dio. Stricklandek eta Morrowek (1999), Santiago Molinak (2001) aipatua, ongi diseinaturiko liburutegia duten Haur Eskoletan haurrek azkarrago eta hobeto ikasten dute irakurtzen liburutegirik ez duten Haur Eskoletan baino (edo dutenetan baina haurren irakurtzeko beharrentzat funtzionalak ez badira). Horrez gain, Lehen Hezkuntzako zailtasunak urriagoak dira liburutegidun eskoletan. Hala ere, gakoa liburutegiaren antolakuntzan dago. Liburutegia erraz heltzeko leku batean egongo da, zaratarik gabeko eta leku argitsu batean kokatuta. Honen apainketa, haurren gustuen araberakoa izango da eta altzariak alaiak eta haurren neurrietara diseinatuta. Baina, alderdi garrantzitsuena, liburutegia curriculumari laguntzeko baliabide gisa erabiltzea da, horretarako bertan irakurketako eta idazketako jarduera asko egin beharko liriteke.

Ikasgelen antolakuntzak ere, jarduteko moduan eragiten du. Izan ere, egin diren ikerketa gutxi ikasgeletan irakurketa txokoa egotea mesedegarria dela diote. Neumanek eta Roskosek (1992), Santiago Molinak (2001) aipatua, hizkuntzaren tailerrari eskainitako txoko bat duten ikasgelak oso lagungarriak dira haurren trebezia psikolinguistikoak hobetzeko, eta asko sustatzen dute irakurtzeko eta idazteko nahia. Halaz ere, txoko hauek ere gutxieneko baldintzak bete behar dituzte: liburuak noizean

behin aldatzea, materialak erabilerrazak, haurrentzako motibagarriak, materiala etiketaturik egotea (txartel handiz eta hizki handiz), besteak beste. Honez gain, txoko horretan ordenagailu bat baldin badago, eta hori lan tresna gisa erabiltzen bada, haurrak motibatuko dira. Honekin batera, aldizkariak, gutunak, boligrafoak eta horrelako materialak egon beharko dira txoko horretan.

6.2. Irakasleen prestakuntza

Nahiz eta hizkuntza idatziaren derrigorrezko irakaskuntza Lehen Hezkuntzan hasi, gaur egun, Haur Hezkuntzatik hasten da. Hori dela eta, Haur Hezkuntzako irakasleek prestakuntza egokia izan behar dute, bai teoria eta bai praktika aldetik ere. Horrek, gaur egun, birplanteamendu handia eskatzen du irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntzan ere. Ikerketan ikusi dugun moduan, irakasleek bai metodoekin eta bai oinarrizko kontzeptuekin zailtasunak dituzte, hori dela eta eskolek formazio saioak prestatu beharko lituzkete. Jakin badakigu eskola batzuetan hizkuntza idatziari buruzko formazio saioak antolatzen direla, baina irakasleek teoriarekin geratzen dira, praktikan jartzen jakin gabe edo horretarako aukera izan gabe. Gure uste apalean, eskoletan horrelako saioak prestatu beharko liriateke eta irakasleei metodologia berriak praktikan jartzeko orientazio gehiago eman beharko litzaieke.

Bestalde, Haur Hezkuntzako azken zikloko eta Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloko irakasleen arteko koordinazioa egon beharko litzateke, Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzara aldatzerakoan hizkuntza idatzian jarraipen bat egon dadin. Batzuetan, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasleen artean, hizkuntza idatziari dagokionez, akordio falta dago, hori dela eta printzipio metodologiko eta irizpide ezberdinak erabiltzen dituzte. Hala ere, irizpideak eta printzipio metodologikoak bateratu beharko lituzkete, haurraren ikaskuntza prozesua errazteko eta desorekak ekiditeko.

6.3. Hizkuntza idatziaren irakaskuntza errazteko printzipio nagusiak

Montserrat Bigasek eta Montserrat Correigek (2000) oso printzipio didaktiko interesgarriak ematen dituzte Haur Hezkuntzan hizkuntza idatzia lantzeko, ikuspegi konstruktibista batetik . Ondoren horietako batzuk laburbilduko ditut:

- Haurrari erronka eskuragarriak eskaini behar zaizkio, garapen hurbileko eremuak eraikitzeko. Hau da, ezin zaizkio haurrari helburu eskuragaitzak proposatu, interesa eta arreta galduko duelako.
- Irakasleak, erantzunak eman aurretik, ikasleak bideratu behar ditu, konponbideak berauek aurki eta eraiki ditzaten.
- Irakasleak haurrentzat irakurri behar du, hori hurrei irakurketa hobetzeko, sustatzeko eta garatzeko aukera ematen dielako.
- Irakasleak hurrekin batera idatzi behar du, horrela haurrak testuaren planifikazioan, testualizazioan eta berrikusketan parte hartzeko aukera izango dutelako.
- Material errealak erabili behar dira, hurrek testuen ezaugarriak, prozedurak eta funtzioak ezagutu ditzaten. Adibidez, hurrek gustuko duten ipuina edo autobuseko billetea, besteak beste.
- Gelako hormetan hizkuntza idatziaren presentzia baldin badago, haurrak testuekin harremanetan jartzeko aukera izango dute. Adibidez, olerkiak edo berriak jarriz.
- Haurrak binaka edo taldeka lan egiten dutenean, elkarri laguntzen diote eta gogoeta bultzatzen dute. Hasierako alfabetatzean, hurrek elkarrekin idazten dutenean, zalantzak sortzen zaizkie eta euren artean komentatzen dituzte, hau da, testu idatziari buruz hausnartzen dute.

6.4. Ariketa funtzionalen adibideak

Konstruktibismoaren arabera, *irakurritz ikasten da irakurtzen eta idatziz idazten*, baina hasieran esan bezala, irakurtzea ulertzea da eta idazteak zentzua behar luke izan. Hori dela eta, hurrekin komunikazio-helburu zehatza duten jarduerak planifikatu behar ditugu; horretarako testu mota ezberdinak irakasleen lanaren ardatz bihurtu beharko lirateke. Hauen bidez, testuen ezaugarriak eta hizkuntza idatzia ikasten dutelako hurrek. Ariketa mota ugari daude hurrekin egiteko, Ane Miren Aizpuruak eta Ixiar Irulegik (1996) azaltzen duten moduan, hona adibide gutxi batzuk:

- Eskutitzak: eskolarteko eskutitz trukaketa, Olentzerori gutuna idatzi, zoriontzeko postalak, besteak beste.

- Ipuinak: ipuinen bukaerak asmatu, ipuin edo antzerki baten testua guztion artean sortu liburutegira eramateko edo pertsonaien zerrenda egin, besteak beste.
- Egunkaria eta iragarkiak: egunkariaren argazkiei izenburuak jarri, egunkaria egin, argazkiak hartuz iragarkiak asmatu, besteak beste.
- Errezetak: osagaien zerrenda egin, errezeta bat aukeratu eta bere egitura aztertu, beste jarduera askoren artean.
- Bestelako ekintzak: irteera baten liburua guztion artean prestatu, ikasle bakoitzaren helbidea txarteletan idatzi, gelako materialen zerrenda idatzi, hitz berdina hiztegi ezberdinetan bilatu...

7.- ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Aizpurua, A. eta Irulegi, I. (1996). Tolosaldeko eskola txikiak. *Hik hasi*, 10, 61-63.

Aguirre de Ramirez, R. (2000). Dificultades de aprendizaje de la lectura y escritura. *Educere articulos*, 11, 147-150.

Fons Esteve, M. (2006). *Leer y escribir para vivir. Alfabetización inicial y uso real de la lengua escrita en la escuela*. Barcelona: Graó.

Gordi, Monica. (2010). La aventura de aterrizar en el aprendizaje de la lectoescritura. *Aula de Infantil*, 54, 17-22.

Equipos de atención Temprana de Cáceres y Badajoz (2004). *Guía para la atención educativa del alumnado con trastornos en el lenguaje oral y escrito*. Merida: Consejería de Educación, Ciencia y tecnología de la Junta de Extremadura.

Haranburu Oiharbide, M. , Alonso Arbiol, I. , Balluerka Lasa, N. eta Gorostiaga Manterola, N. (2008). *Hizkuntza idatziaren didaktika Haur Hezkuntzan eta lehen hezkuntzan*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

Hezkuntza Saila eta Dislebi elkarte. (2008) *Jardunbide egokien gidaliburua. Irakasleak eta irakurketaren irakaskuntza*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

Larrea Muxika, K. eta Maia Larretxea, J. (2010). *Galdera erantzun batzuk hizkuntzaren didaktikaz*. Bilbo: Euskara eta eleaniztasuneko errektoreordetzaren sare-argitalpena.

Mesonero de Miguel, M. (2005). *Ikerketa proiektuak lantzeko teknikak*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea. 2014ko Otsailean kontsultatua:

Correig, Montserrat & Bigas, Montserrat (coord.) (2000). *Didáctica de la lengua en la educación infantil*. Madrid: Síntesis.

Molina, Santiago. (2001). Irakurtzen ikasteko zailtasunen prebentzioa Haur eskolan. Ikastolen elkarte. *VIII Jardunaldi pedagogikoak: Irakurketa eta idazketa*. Iruñea: Ikastolen elkarte.

Prado Aragoes, J. (2004). *Didáctica de la lengua y la literatura para educar en el siglo XXI*. Madrid: La Muralla.

Valles, A. (1984). *Dificultades lectoescritoras en la Enseñanza Básica*. Alcoy: Marfil.

ERANSKINAK

I. eranskina

IRAKASLEENTZAKO GALDERA-SORTA

1.- Zein adinarekin hasi dira haurrak irakurtzen eta idazten?

- 3 urterekin 4 urterekin 5 urterekin

2.- Zure ustez, zer da irakurtzea?

.....
.....
.....

3.- Eta idaztea?

.....
.....
.....

4.- Zein metodologia erabiltzen duzue irakurtzen eta idazten irakasteko?

.....
.....
.....

5.- Irakurketaren zein fasetan kokatzen dira gelako haurrak orokorrean?

(Adierazi X batekin)

1. Fase logografikoan
 2. Fase alfabetikoan
 3. Fase ortografikoan

6.- Idazketaren zein fasetan kokatzen dira gelako haurrak orokorrean? (Adierazi X batekin)

- 1. Imitazioaren fasea
- 2. Idazkera bereizien fasea
- 3. Zatitze-silabikoaren fasea
- 4. Zatitze silabiko-alfabetikoaren fasea
- 5. Zatitze alfabetikoaren fasea

7.- Hurrengo zerrenda honetatik zeintzuk dira ikasleek gehien errepikatzen dituzten akatsak? (Adierazi X batekin gehien errepikatzen diren 5 akatsak)

- Asmakizunak: hizkiak edo silaba asmatzea, agertzen ez diren hitzak asmatuz.
- Bazterkeria: hitz bat baztertu, hori nola irakurri behar den ez jakiteagatik.
- Bazterketa: hizki bat edo gehiago ez irakurtzea edo idaztea.
- Burua mugitzea: lerroaren noranzkoari begien eta buruaren mugimenduekin jarraitzea.
- Errepikapena: hitza, silaba edo hizki bera behin baino gehiagotan irakurtzea.
- Gain-idazketa: hizki batzuk besteen gainean idaztea.
- Grafia identifikatzea: grafiaren irudia identifikatzeko zailtasuna.
- Grafia irudikatzea: behin fonema identifikatuta, grafia fisikoki adierazteko zailtasuna.
- Inbertsioa: hizkien hurrenkera logikoa aldatzea.
- Kutsadura: bi hitz edo gehiago elkartzea.
- Lerroen aldatzea: espazioa eta ikus-eremua behar bezala ez hautemateagatik, lerro batetik bestera igarotzea edo lerro-aldaketan behar ez dena aukeratzea.

- Lerroen arteko tartek: lerroen arteko tarte desegokiak eta irregularrak.
- Norabidea aldatzea: ezkerretik eskuinera idatzi beharrean, kontrako norabidean idaztea.
- Oratzea: idazkailuaren eta eskuaren arteko erlazioa: jarrera egokia edo desegokia.
- Ordezkapena: hizki batzuk besteen ordeztuz idaztea edo irakurtzea.
- Orientazioa: marra, uztai eta kiribilen norabidea eta errotazioa.
- Seinalatzea: atzamarrez edo arkatzez lerroei jarraitzea.
- Silabetan zatikatzea: astiro irakurtzea silabaka.
- Tipografia ez ezagutzea: letra mota bakarra identifikatzen duenez, besteak ezin ditu identifikatu.
- Txandaketa: hitz antzeko bi nahastea, bata bestearen ordeztuz erabiliz.
- Ulermenik ez: haurrak ez du ulertzen irakurtzen duena.
- Uztaiak: grafietan egiten diren uztaiak eta kakoak nola egiten dituen haurrak (m, n, b, s...).
- Zalantza: hitza, silaba edo hizki baten aurrean zalantzak izatea eta hori irakurri aurretik isilik geratzea.
- Zatiketa: silaba eta hitzen ez-ohiko zatiketak eta banaketak egitea.
- Besterik. Aipatu zein:

8.- Aurreko zerrendatik zeintzuk dira ikasleek egiten dituzten akats larrienak?

(Kuantifikatu 1etik 5era)

1.....

2.....

3.....

4.....

5.....

9.- Aurretik aukeratutako akats horiek zer dira? (Adierazi X batekin)

- Erroreak: Desbideratze sistematikoak dira. Ikasleak errore berdina behin eta berriz errepikatzen du forma zuzena ikasi ez duelako.
- Hutsegiteak: Desbideratze aldakorrak dira. Ikasleak batzuetan zuzen egiten du eta beste batzuetan, forma okerra erabiltzen du.
- Lapsusak: Arreta faltagatik, oroimen laburragatik edo nekeagatik, besteak beste sortzen dira.

10.- Zure ustez, zergatik gertatzen dira goian aukeratutako bost akats horiek?

1.....

2.....

3.....

4.....

5.....

11.- Zure ustez, nola aurreikus daitezke akats horiek?

.....

.....

.....

12.- Haurren zailtasunen bat susmatzen duzuean, zer nolako protokoloa jarraitzen duzue?

.....

.....

.....

.....

II. eranskina

GALDERA-SORTAREN 5 ETA 6 GALDEREN AZALPEN TEORIKOA

Irakurtzeko faseak

1. Fase logografikoan, haurra mundu idatziaz interesa erakusten duenean hasten da. Fase honetan, haurrak ahozko eta idatzizko hizkuntzaren arteko erlazioak egiten ditu eta irakurtzeko ekintza imitatzen du. Gainera, hitz idatzi batzuk ezagutzeko gai da, bere izena edo ipuinen izenburuak, besteak beste. Momentu honetan, haurra helduei galdetuz eta, batez ere, helduak imitatuz eskuratzen du informazioa.
2. Fase alfabetikoan haurrak kontzientzia fonologikoa bereganatzen du, hau da, hitzak fonemez osatuta daudela konturatzen da eta hizkiez adierazten direla ere. Haurra deskodifikatzen hasten da eta hori izango da bere motibazioa, nahiz eta esanahiaz ez arduratu.
3. Fase ortografikoan, haurrak testu idatziaren ulermen globala egiten du, hau da, testu osoaren esanahia bilatzen du. Izan ere, irakurtzeko testuinguru semantikoak, sintaktikoak eta morfologikoak kontuan izaten ditu.

Idazteko faseak

1. Imitazioaren fasean, haurrak idazte ekintzaren zeinuak imitatzen ditu, hots, lerroka idazten dela eta elementu grafikoak banatu behar direla dakite. Fase honetan, haurrak ez du marrazkia eta idazkia bereizten ezta letrak eta zenbakiak ere. Hitza eta objektuaren arteko harremana dagoela uste du.
2. Idazkera bereizien fasean, haurraren forma grafikoak hizkietara hurbiltzen hasten dira. Hizkiak irudikatzeke gai izango da, baina horrek ez du balio fonetikorik izango. Honez gain, hizkien antzeko grafiak erabiltzen hasiko dira, adibidez, “E”

buelta emanda. Fase honetan, haurra kodearen funtzionamenduari buruzko hipotesiak egiten hasiko da, esaterako, “kalitatearen hipotesia”, hau da, haurrak idazkiek gutxienero ikur kopurua izan behar dutela ohartzen dira.

3. Zatitze-silabikoaren fasean, haurra idatziak ahozko hizkuntzaren soinuekin harremana duela konturatzen da eta aldi berean, hitzen zatitze silabikoaz konturatzen da. Haurarentzat, silaba bat soinu bat izango da, beraz hizki bat irudikatuko du. Fase honetan gatazka kognitiboa izaten dute, gutxienero kantitate eta kalitatearen inguruan.
4. Zatitze silabiko-alfabetikoaren fasean, idatziaren eta ahozko hizkuntzaren arteko korrespondentzia aurkitzen du haurrak. Kontzientzia fonologikoa hartzen du, hau da, konturatzen da silaba bakoitzean fonemak daudela. Hala ere, haurrak arazoak topatuko ditu fonema guztiak identifikatzeko eta nola diren jakiteko.
5. Zatitze alfabetikoaren fasean, haurrek hizkuntza idatziaren kodea ondo ezagutzen dute eta ahoskatu ahal duten guztia paperean idatz dezakete. Dena den, alderantzizko eta silaba trabatuekin zailtasunak erakusten dituzte eta oztopo ortografikoak ere.